Jardunaldien kronika

Programan iragarria zegoen bezala, abuztuaren 25ean hasi ziren Gernikan Euskalarien Nazioarteko Jardunaldik, ondoko egunetan Leioan Euskal Herriko Unibertsitatean iharraitzeko.

Lehen egunean, Gernikan, Euskadiko Gobernuko agintari eta lau Diputazioetako ordezkariak mahaiburu batez ziren. Hasteko, Fr. Luis Villasante euskaltzainburuak agurtzeko hitzak. Gernikako Andra Mari dorean. Eta Euskaltzaindiko idazkari nagusiak "Agur jaunak" kantatu ondoren, euskalarien agerpena egin zuen, beren izenak banan-bana aipatuz eta euskalariok zutituz. Ohoretsu zen munduan zehar sakabanatuak baizik urtean euskararen alde lan egiteko hainbeste urtean euskararen alde.

*Han berian, Jardunaldieri zuzenki lotuko zen hitzaldia eman zuen Juan Haritschelhar euskaltzain burukoak; bere gaia: **Euskarari buruzko ikerketak gaur egunean.** Onkologo, egunetan erabiliko ziren gai bakoitzean azken urteotan zer nolako aurrerapenak diren adierazi ondoren, xarerako hitzaldigisa. Argibide batzuek eskaini ziguten, linguistika eta filologia arloan egungo egoerara buruz.*

Andra Mari koralak Euskaltzaindiko ziren musikarien konposaketaz betetzen zuen eguneko ekintza: J. Ametzagaiza, R.M. Azkue, J.A. Donostia, J. Altube eta koral horren zuzendari eta Jardunaldi hauen antolakizun bardoko idazkariak J. A. Arana Martija ber-berak egun honetarako berriro duen "Gernikako arbola"-ren bukatzeko.

Azkenik, Euskadiko Gobernukoak Lehendakari eta Hezkuntza-sailburu den Carlos Etxenikek, lehenak euskaraz eta frantzesez eta bigarrenak euskaraz eta ingelesez ongi etorria eta eskerrona egin ondoren Garaikoetxea lehendakariak, ekintza hau goraipatu zuen euskaraz eta espainolez, ongi etorri eta emaztez batean idekitzat eman ziguten Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak.

Gomitatu, euskalari eta antolatzaileak, ondoren, Santimamiñe deritzon haitzulora joan ziren. Harriaren azterketa eta pinturak eraikitzeko gidari ona izan zuten Jesus Altuna arkeologoagan.

Lezika baserrian bazkaldu ondoren, ostera ere Gernikara. Batasun Aretoan, X. Amuriza, J. Enbeita, J. Apalategi, J. Agirre eta Xanpun, Bizkaiko, Gipuzkoa eta Lapurdiko bertsolariak izan ziren euskalarien atsegingarri. Euskalaririk gehienok inoiz ez dutenez izan bertsolariak plazan entzuteko aukerarik, eta gure herri literaturak duen gauzarik bitxiena dugun bertsolaritzak, esan beharrik ere ez-gero ez pozik jarri zituen atzerritarrek bihotzak.

Bihariamunean, abuztuaren 26an, ondoko egunetan, Leioan iharraitzeko Jardunaldiok.

*Mundu guzian hain ospetsu den André Martinet hizkuntzalariak ideki zituzten Leioan, Euskal Herriko Unibertsitatean. **Euskararen fonologia sikrokronikoa eta diakronikoari** buruz lehen hitzaldia. Euskarak bere barnean izan ditzakeen aldakuntzazko ebolutzioak, linguistikarako duen garrantzia adierazi zuen.*

Aldakuntza horiek argi daudela adierazi zuen batez ere oklusibak (p,t,k,b,d) eta xistukarizkoak (s,z,x,ts,tx) ahozkatzean, eta h letra galtzea ere. Itxura denez, gaztelaniaren eragina ere bere influentzia izango du euskarak. Horrezgainera, euskararen barne egitura aipatu zuen Europako hizkuntzen artean gauza berezi bezala.

Hitzaldia oso teknikoa izan zen eta jakina den bezala, entzulerik gehienak ez ziren iristen ulertzeko maila horretan. Esta harritzekoa gauza bera gertatzen zaigu kazetariei ere. Honegatik, Leioan ondoren, kazetarien galdeak bazter batzuetan hide batzuetatik joan ziren. Euskara batua ala euskalkiak? Normala den bezala, askoren artean hain bizi dagoen problematika. Martinetek argi ta garbi agertu zuen euskara baturen beharra ofizialtasunerako, batez ere aministrazioan behar beharrezko zaigunez. Hala ere, euskalkiak bizirik daudenez, beren iraupenak laguntza behar du. Bestalde, baita ere gehitu zuen, gara bakoitzeko egoerari erantzun beharra eta hizkuntza bezala iraunaraztea nahi badugu batasuna lortu beharra.

Egun berean, fonetikaz mintzo zen Kilburn MacMurraugh. Honek, ahoko lege fisikoen aldetik gehiago begiratu zuen, bere espezialitatea hor denez gero. Euskaraz poliki mintzatu zen eta honek eman zien bidea kazetarieri gure hizkuntza la zaila zen adieraz zezan. Eta, MacMurraugh jaunak gure metodoak atzerakoiak zirela agertu zuen. Bere ustez, euskara ikastekó metodoak bizkortzeko beharrezkoa zaigu: "audiolingua" deritzan era berrietara jotea.

Goiz berean, E. Knorr eta P. Sacristoval Euskaltzaindikoak beren aurkikuntzen berri eman zuten.

Arantzazuraino joan ginen bazkaitara. Asteko egunik euritsuena tokatu zitzaigun. Baina, guk, euskalari kanpotiarrei bertako kultur lekuak erakutsi nahiaz, programari jarraitu nahi genion. Arratsaldez, eliza eta liburutegia ikusi ondorean Oñatira joatsi ginen Unibertsitatea eta bertako artxibo eta liburutegiak ikusteko. Arantzazun K. Zubizarreta bezala, Oñatin J. M. Agirrebalzategi izan genuen erakusle gidari. Gainera, Udaletxekoek, ongi etorria emateko, herriko dantzariak ekarri zituzten. Folklore biziaren ezaugarri Korpus egunekoak dantzatu zituzten.

● Los encuentros Internacionales de Vascólogos

Siguiendo el anunciado programa, el día 25 de agosto dieron comienzo los Encuentros Internacionales de Vascólogos en Guernica para continuar, días sucesivos, en la Universidad del País Vasco, en Lejona.

El primer día privaron los actos protocolarios, presididos por el señor Garaicoechea, los consejeros de Educación y Cultura y los representantes de las cuatro Diputaciones, Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya, fundadoras de Euskaltzaindia y el presidente y secretario de esta entidad académica.

Tomaron la palabra el presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca, los consejeros de Cultura y Educación y el presidente Garaicoechea, con saludos de bienvenida y de apertura de los Encuentros.

El señor Haritschelhar, vicepresidente de la Academia, expuso la primera de las ponencias a modo de introducción sobre el estado actual de las investigaciones sobre el euskara.

La coral Andra Mari de Guernica actuó con un repertorio de obras cuyos autores fueron miembros de Euskaltzaindia, para terminar con el "Gernikako arbola" compuesto por su director y secretario de la comisión organizadora de los Encuentros J. A. Arana Martija.

Seguidamente, los vascólogos, combidados y miembros de la organización se trasladaron a Santimamiñe, donde pudieron contemplar el yacimiento y las pinturas parietales del Paleolítico guiados por el arqueólogo don Jesús Altuna.

Tras el almuerzo en el caserío Lezika, próximo a la cueva de Santimamiñe, en la plaza de la Unión de Guernica hubo actuación de bersolaris, al objeto de mostrar a los vascólogos esta particularidad de nuestra literatura popular, y seguidamente, en el frontón Jai-Alai pudieron contemplar un partido a cesta-punta.

Desde el día 26 siguieron las jornadas en el ***campus** de la Universidad del País Vasco, en Lejona, iniciando con la ponencia del prestigioso lingüista André Martinet, sobre Fonología sincrónica y diacrónica del euskara. Se centró principalmente en la evolución que ha sufrido el sistema consonántico del vascuence. Que ello se debe, según Martinet, a los cambios acaecidos en las consonantes oclusivas (p,t,k,b,d) y silbantes (s,x,z,ts,tx,tz), y la función ejercida por la aspiración (h) en su desarrollo. También se refirió al acento y su aparente influencia en el castellano. Además, hizo alusiones a la estructura interna del idioma vasco.*

Después de cada ponencia se dió oportunidad a los periodistas para entrevistar con el orador, y en este caso, las preguntas se orientaron a recoger opiniones sobre el euskara batua y los dialectos. Martinet dijo, a este respecto, que la unificación le era necesaria a la lengua vasca para la oficialidad y uso como lengua de administración, y, naturalmente, la lengua escrita común se tenía que aplicar en la enseñanza, pero que la lengua viva estaba dispersa en los dialectos y convendría ayudar a su mantenimiento, buscando un equilibrio ideal, adaptando la enseñanza de la lengua a cada situación concreta.

*A MacMurraugh que expuso un comunicado sobre fonética. Tal vez por su dominio del euskara, le preguntaban sobre la dificultad de aprender el vascuence. El mostró la necesidad de aplicar técnicas mas modernas para la enseñanza de las lenguas, como es la aplicación de **Audiolingua** que no debemos confundir con**audiovisual.***

Por la tarde se visitó el Santuario de Aránzazu y la Universidad de Oñate, explicando su historia y mostrando sus valores artísticos y el contenido de sus respectivos archivos y bibliotecas.

(II)

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak ez ziren joan itxuraz bezain zelai eta baketsu, antolatzaileonizat behinik-behin. Holako ekintza batek berez izaten ditu eragozpenak eta desbideratzeak. Hala gertatu ere. Matrikulatuez, gure aurreikuspenak labur gelditu ziren. Uste genuen ehundik ehun eta berrogerira matrikulatu izango genituela, filologia estudiatu dutenen eta estudiatzen ari direnen kopurua kontuan harturik (horietarik 50 matrikulatu ziren) eta linguistika alorrean mugitzen direnak barne zirela. Baina, antolatzaileon zoritxarrerako eta euskararen zorionerako, gure usteak ustel. Berrehun da berrogetahamartik pasatu ziren.

Lehendik, opor garai zelako, itzultzaile gutiegi hain denbora laburrean horrenbeste lan itzultzeko. Bestalde, bat-bateko itzulpenetarako euskarazkoan eskolarik ezagatik, gure hizkuntza honen ezina. Gela handi batean lau hizkuntzak bat bateko itzulpenetan erabili ahal izateko tresna-gailurik eza eta eta abar. Aldez aurretik aditzera eman zenez, hitzaldien gelatik aparte, beste bi gelatan euskaraz eta gazteleraz emango zen monitoren bidez (telebistaz), baina ez ginen oroitu hirugarren bat zuzenean jartzeaz eta arrazoi osoa zuten inglesez eta frantzesez zekiten matrikulatuak zuzenki entzuteaz. Honegatik, Leioan, bigarren egunean hirugarren monitor bat jarri zen zuzenean entzun nahi zuenarentzat. Lehen bi egunetan, tarteka, huts teknikoak ere izan ziren eta hitzaldi guziak osorik entzuteko eragozpenak izan ziren. Baina bigarren egunetik aurrera hontaz ez zen kejarik jaso.

Bestalde, asteazkeneko programa oso estu eraman zen, hitzaldi gehiegi bildu zelako. Hemen ere bada gertatua adierazi beharra. Txosten edo ponentzien programaketa egin ondorean egin ziren agerpen edo komunikapenen eskariak, honarako epe bat jarriaz. Epe horren barruan bizpahiru besterik eziren jaso eta zenbait Euskaltzaindikori bigarren deia egin genien zerbait bidali zezaten. Gero, bat batean, epetik kanpora, zenbait lan eta batzuk bai eta beste batzuk ez aukeratzeaz inor ez ginen ausartu. Beraz, denak barrura, baina gero gerokoak. Arratsaldetako programaketak eginak ziren eta dena estu estu sartu behar. Eskerrak hizlariak bildurik eta gertatuta adierazi ondorean bakoitzak berea laburtzea lortu zutena, bestela larri behar genuen. Dena dela, lan guziak oso osorik liburu batean argitaratzeko asmoa dugu.

*A. Tovar Konparaketaz, **Leziko-estadistikaz eta tipologiaz** mintzatu zen. Entzuleengandik txalo beroak jaso zituen eta ondo merezi ere bai hitzaldi honegatik eta bai euskara hain zapaldua zen garai haietan bere alde aldarrikatu zenak ondo irabaziak zituelako Europan lehenago izango ziren hizkuntza zahar haietako baten aztarnak aurkitzen dira euskaran eta bere urrutiko senideak behar bada Europaren ekialdean edo haratago daude. Tipologiaz non kokatzen den eta konparaketetarako gaur egun erabiltzen diren teknikak agerrerazi zituen.*

Tovar-i ere, zenbait kazetarik, euskararen batasunezko galdea egin zioten. Batua, hil edo bizikoa omen da, eta administraziorako behar beharrezkoa. Zelako batua, euskaldunon kontua dela eta batez ere Euskaltzaindiaren lana. Horrez gainera, euskalkieri ere begiratu beharra, bizirik iraun dezaten.

Mukarovsky-k bere aurkezpenean, Afrikako ifarraldeko hizkuntzekin duen senidetasuna agerrerazteko frogak azaldu zituen. Oroz Arizkurenek euskara-ibero teoria zaharra zertan datzan, Kintanak Kartveliar izen batzuren kidetasunez, Braun-ek kaukasiar-euskara azterketak. Beraz, konparaketazko aurkezpenak ugari ziren, baina inork horiaz fede guti. Hoien ondoan, Brettschneider-en agerpena bestelakoa izan zen, hizkuntzen tipologia eta hizkuntza unibertsalak eta euskara horien artean konparatuz.

*Hizkuntzalari aldetik, Gunter Brettschneider-ek teoriak praktikotasunera eramaten dakiela erakutsi zigun. Honegatik zion euskara ez dela beste hizkuntza bat baizik, hizkuntza normal bat eta salbatzerik nahi badugu hizkuntza oso gaitza den mito baztertu behar dugu, bildurra eta errespetoa galduz. Bestalde, euskara batua beharrezko ikusten du, baina euskalkiak ere ezin ditzakegu ahaztu. **Deia**-ko kazetariari adierazi zionez: "Telebista euskaraz jarri behar baldin bada, esate baterako, esan beharrik ere ez euskara batuan izan behar duela. Eta telebista bezala hizkuntza ofizial guztiaz; euskara batua ez baita hizkuntza ofiziala baizik. Baina bada hizkuntza ofizialaren gainetik tokian tokiko beste herri-hizkuntza bat eta hori ere behar da landu, dialektoen aberastasun hori ez galtzeko".*

*Terence H. Wilbur-en txotena: **Euskal sintaxia, forma logikoa eta aditz laguntzailea** gaiaren inguruan izan zen. Wilbur-entzat harrigarria da euskararen egitura. Honegatik, euskara ikasteari heldu zionean, Californian bizi den euskaldun batek esan omen zion, hitz eta aditzen joskerak atzekoz-aurrera ikasteko. Eta, arrazoia omen zuen, joskerak beste era batera egiten direlako. Hori, beretzat, interesgarriagoa izan zen eta hortatik eraman ditu bere ikerketak; gaur egun hemen agertuak.*

P. Lafittek aditzari buruz aurkeztu zuena ere oso interesgarria izan zen.

Atxondon, baserri giroko bazkariarekin batera kantari eta soinujoleak ziren eta ondorean Garai eta Berrizko dantzariak, harrijasotzaile, aizkolari, ahari-talka eta abar.

Elorrioko Udaletxean ongietorria, bertako parrokian euskal-gotiko arkitektura adierazi eta Argiñetan hamargarren mendeko hilobi eta hilarriak erakutsi ondorean berriz Bilboruntza.

Egun beteegia gertatu zen eta azkenerako denak akituak.

*Gainera, egun hontan, presaka egin zen **Euskera** (1920-1979) "Index"-aren aurkezpena, egile eta gaien aurkibideekin hirurehun orrialdek osatzen dutela.*

● Presentación de comunicaciones

El día 27, la organización tuvo que superar una serie de dificultades debido a una asistencia superior a lo previsto y a varios fallos técnicos en las traducciones simultáneas. Además, para este día se instaló otro monitor de circuito cerrado para aquellos matriculados que preferían escuchar en directo, pues las otras dos salas estaban destinadas para poder escuchar en vascuence y castellano.

Este día hubo dos ponencias. La primera de A. Tovar sobre el tema: Compaparación: Léxico-estadística y tipología. Y, la segunda, de T.H. Wilbur en torno a la Sintaxis del euskara. Ambas se siguieron con gran interés por los oyentes.

Este día estuvo excesivamente recargado de comunicaciones, casi todas de temática comparativa, desde las lenguas africanas hasta las caucásicas pasando por la ibérica. La mayoría de los linguistas abrigan pocas esperanzas de los resultados de estas investigaciones; pero, sin embargo, el interés del público fue creciente.

Gunter Brettschneider centró la suya sobre la tipología del euskara en relación con otras lenguas, con una exposición muy técnica y precisa, mostrando su profundo conocimiento del euskara.

La comunicación de Pierre Lafitte sobre las similitudes de los verbos navarro-labortano-guipuzcoano, basándose en los textos de Lizarraga, fue una valiosa aportación.

Las entrevistas a los ponentes siguieron la misma trayectoria. A. Tovar declaró que "una lengua hoy no puede subsistir sino con escuela y con los medios de comunicación modernos, y una forma de lengua unificada es necesaria para que sirva en estos usos y en los de la administración autónoma. Privar hoy a una lengua de esto es lo mismo que condenarla a muerte. El camino de la paz en las provincias vascas y en España pasa, tanto por la política, como por la política linguística".

Para Terence H. Wilbur, "la lengua vasca es una de las menos conocidas del mundo, dándose la circunstancia de que el euskara es una lengua exótica que no vive en una tierra remota, sino en la parte más occidental del Oeste de Europa". Asimismo argumentó que no se sabía bastante acerca de todas las lenguas del mundo: "Es un subterfugio, ya que todas las buenas teorías se basan en pruebas incompletas. Bajo mi punto de vista, los universalitas se han pasado" señaló. Como anecdótico contó que en cierta ocasión un viejo amigo vasco de California le dijo: "Si vas a estudiar euskara apréndelo hacia atrás". Ello significa que la sintaxis en este idioma se invierte, y éste es el mayor problema para los que hablan las lenguas circundantes procedentes de las indoeuropeas.

Para Brettschneider ya va siendo hora de romper de una vez para siempre el mito de que el euskara es una lengua difícil. El euskara es una lengua normal como otra cualquiera, sólo diferente de las que le rodean. La unificación considera necesaria para la oficialidad pero buscando los medios necesarios para mantener vivos los dialectos.

En esta apretada jornada se presentó el "Indice" de la revista Euskara, órgano oficial de Euskaltzaindia, donde se recogen los frutos de las investigaciones, trabajos y actas de la Academia, desde 1920 hasta 1979, ordenado por autores y materias y que en lo sucesivo constituirá una obra de consulta indispensable para todo aquel investigador sobre la lengua vasca.

Hubo comida rural en el valle de Achondo con actuaciones folklóricas y visita a Elorrio para mostrar su parroquia del gótico-vasco y los sepulcros de Arguiñeta, del siglo X.

Juan SAN MARTIN